



LAN ETA JUSTIZIA

SAILA

Lan eta Gizarte

Segurantzako

Sailburuordetza

Lan eta Gizarte Segurantzako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE TRABAJO

Y JUSTICIA

Viceconsejería de Trabajo y

Seguridad Social

Dirección de Trabajo y Seguridad Social

ENPRESETAKO BERDINTASUNERAKO PLANAK ERREGISTRATZEKO JARRAIBIDEAK**GAIA: BERDINTASUNERAKO PLANEN ERREGISTROA**

6/2019 Errege Lege Dekretuaren 1. artikulua (6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, enplegu- eta lantegi-arloan gizon-emakumeen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoa; martxoaren 7ko BOE, 57. zk.) Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 46. artikulua aldatu du, eta hiru atal gaineratu dizkio manu horri:

«4. Enpresetako Berdintasunerako Planen Erregistroa sortzen da, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren Lan Zuzendaritza Nagusiaren mendeko eta autonomia-erkidegoetako lan-agintaritzen mendeko lan-hitzarmen eta -akordio kolektiboen erregistroen zati gisa.

5. Enpresek erregistro horretan inskribatu behar dituzte berdintasunerako planak.

6. Arauz, berdintasunerako planen diagnostikoa, edukiak, gaiak, soldata-ikuskaritzak, jarraipen-sistemak eta ebaluazio-sistemak garatuko dira, bai eta Berdintasunerako Planen Erregistroa bera garatu ere, horren eraketari, ezaugarriari eta bertan inskribatzeko nahiz bertara sartzeko baldintzei dagokienez».

Euskal Autonomia Erkidegoko lan-hitzarmen eta -akordio kolektiboak erregistratzeari eta gordetzeari buruzko urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 5. artikuluan aurreikusten denarekin bat, lan-hitzarmen eta -akordio kolektiboak erregistratzeari eta gordetzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2.1.f) artikularekin batera, honako hauek inskribatu behar dira: berdintasunerako planek enpresetan jarraitu behar dituzten baldintzak ezartzen dituzten akordio sektorialak, negoziazio kolektibo sektorialak ukitzen dituen enpresetan berdintasunerako planak onesten dituzten akordioak eta enpresetako hitzarmen kolektiboen ondoriozko berdintasunerako planak onesten dituzten akordioak.

Halaber, lan-hitzarmen eta -akordio kolektiboak erregistratzeari eta gordetzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren azken tartekian jasotzen denaren arabera, nahi duenak eska dezake hitzarmen kolektibo propiorik ez duten edota hitzarmen sektorial batetik ez datozen eta berdintasunerako planak onartzen dituzten akordioak gordetzea.

Alabaina, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 46.5. artikulua berriari erreparatuta, berdintasunerako planak egiteko betebeharra duten enpresa guztiek inskribatu behar dituzte horiek Erregistroan, planaren jatorria hitzarmen kolektibo

batean (sektoriala nahiz enpresakoa) egon ala ez egon.

Gaur egun, REGCON aplikazio informatikoaren bidez gordetzen dira hitzarmen eta akordio kolektiboak, lan-hitzarmen eta -akordio kolektiboak erregistratzeari eta gordetzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian xedatzen denarekin bat.

Aurreko guztiarengatik, eta Enpresetako Berdintasunerako Planen Erregistroa legez ezarrita dagoen moduan garatu bitartean, horren eraketari, ezaugarriei eta bertan inskribatzeko nahiz bertara sartzeko baldintzei dagokienez, **REGCON aplikazioaren bidez inskribatuko dira berdintasunerako plan guztiak.**

Honako bide hau jarraitu behar da REGCON aplikazioan:

Hasierako orria / AKORDIOAK / Aurrekaririk gabe / BERDINTASUNERAKO PLANEI BURUZKO AKORDIOA (2.1.f) artikulua).

Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzaren eta Lurralde Ordezkaritzaren lan-antolamendurako zerbitzuek emango diete interesdunei jarraitu beharreko bidearen berri.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 15a